



'BERTSO JAZZA' GURERA ERE HELDUKO DA

«Bertsolaritzari eta kulturgintzari aportazio bat egiteko» sortu zuten ekimena 10 lagunek, tartean Unai Elizasu leitzarrak 7

**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Ostirala
2009-01-16**

VII. URTEA 1.604. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Elkarrekin daude gelan adin ezberdinetako haurrak, eskola txiki batean bezala. IMANOL GARCIA

TXIKIENENTZAT ESKOLA MARTXAN, HERRIAN BERTAN

LARRAUL Ikasturte honetan abiarazi dute Larraulgo eskola; 2 eta 4 urte bitarteko bederatzi ume joaten dira bertara 5



Eraikinaren itxura kanpoaldetik, sutearen ondoren. I. TERRADILLOS

Bi etxe hustu behar izan dituzte sute baten ondorioz

TOLOSA Herenegun gauean Soldadu kaleko 12. zenbakiko 4. solairuan piztu zen sua 4

Euskararen normalizazioan urrats berriak emango dituzte

TOLOSA Hiru ekimen jarriko dituzte martxan aurten UEMAk, Galtzaundik eta Kontseiluak 3



Tfn.: 943140383 e-mail: info@getariakobakolina.com

Z **Zurea da hitza**

Atal honetan zuen kezak, iradokizunak, eskertzak... argitaratzen ditugu ostiralero. Horiek guri helarazteko hainbat bide dituzue: Interneten, 'www.tolosaldeko hitza.info' webguneko 'Zurea da hitza' atalean; e-mailaz, 'tolosaldean@tolosaldeko hitza.info' helbidean eta 943 655695 zenbakian.

'Tolosaldeko gida'

Pasa den astean gure eskualdeko herrietako postontzi, taberna zein dendetan *Tolosaldeko gida* izenburua zuen aldizkaria banatu zen. Portadan Bide Ertzean talde tolosarraren argazki biztanleria bat ageritzen barneko orrialdeetan taldeari egindako elkarrizketaren berri emanez. Besterik gabe, gidak zekarrrena irakurtzeari ekin eta sekulako ezustekoa hartu nuen aurkibideko egunak gaztelania hutsez ageri zirela ikusi nuenean. Inprentako akats bat zelakoan aurrera jarraitzea erabaki nuen baina berehala ohartu nintzen gida honetan gure hizkuntzak ez duela lekurik.

Benetan lotsagarria iruditzen zait Tolosaldeko biztanleriari zuzendutako gida batek horrelako hizkuntza irizpideak edukitzea edo euskararen kasuan irizpiderik ere ez edukitzea. Irargarkiek gidako orrialde asko betetzen dituzte, pentsatzekoa da iragarkiak hone-lako publikazio batek beharrezkoa duen finantzaketa lortzeko ezinbestekoak izango direla, baina ia denak gaztelania hutsez agertzea ere? amorratzeko modukoa benetan. Gidako orrialdeetan zehar aurrera egiten nuen bitartean nire ezinegona handitzen zihoan, edukí guztiak erdaraz! Halako batean Bide Ertzean taldearen elkarrizketara iritsi nintzen, uff! hau behintzat euskaraz egin dute! Gehiegizkoa izango litzateke euskaraz abesten duen talde honi ere elkarrizketa gaztelaz egitea.

Orokorrean, euskaraz 4 orrialde eta gaztelaz 15etik gora! ez al duzue uste gure herriko hizkuntzak askoz leku handiagoa merezi duela? Euskararekiko horrelako jarraera baztertzailak ikuste a nartezi-na da eta espero dut publikazio ho-

ren inolako laguntza publikorik ez jasotzea, kontrakoa eskandalagarria bailitzake. Badirudi gure herrian horrelako hizkuntza jokabideak doan irtetzen direla eta bada garaia euskaldunok beste alde batera begiratzeari utzi, gure hizkuntza eskubideak defendatu eta horrelako urraketen aurrean nor bere esku dituen neurriak hartze-ko. Guzti honen aurrean eta aldatketarik eman ezean, hurrengo alea iritsi bezain laster zuzenean zakarrontziara joango da.

Villabonako Euskal Herrian Euskaraz.**Kiroldegiko zikinkeriak**

Herriko komunikabideetan ohikoa izaten da Tolosaldeko kiroldegiko garbitasun-ezari buruzko kritikak irakurtzea. Gehienak, guztiak ez badira, bertako arduradunak eta, bide batez, baita langileei zuzendutak. Nik, erabiltzailea naizen aldetik, askoz ardurua handiagoa leporatuko nieke, zikinkeria kontuari dagokionez, erabiltzaile bartzuei kudeatzaileei baino. Izan ere, asko dira komunak erabili ondo-

ren bonba botatzen ez dutenak, bizarrak kendu eta konketa ile eta aparrez beteta uzten dutenak... Aste honetan, aldagela batean sartu nintzenean, ile-mataza bat aurkitu nuen zakarrontzian eta ile gehiago lurrean eta konketan. Ilea-paindegira joan beharrean kiroldegian mozten dute hainbatek adatsa!

Jose Mari

■ «Egia esan, batzuk eztaikit ze afeitatzeko beharra duten kiroldegian, fantasmarena egitea iruitzen zait».

■ **Joxepe.** «Ni maiz afeitatzen naiz kiroldegian, eta beste garbitasun neurri bat iruditzen zait, dutxatzea bezain *fantasma*: dutxatzen denak ez al ditu bere izerdiak eta gorputzko bizartxoak han zuten? Kiroldegiko komunetan kaka egitea ere fantasmada al da?»

■ **Antonio.** «Ilea mozte ere badaukazu, hori de garbitasuna da... iruitzen zait batzuk propio uzten dutela bizarrak, kiroldegiko aldagelatan gero afeitatzeko, eztaikit ze pelikulako pertsonaia balitz bezala».



Euskal Gorrakeoen bisita jaso zuten Fleming ikastetxean. HITZA

B **Blogteka****Elikadura osasungarriak haurtzaroan duen garrantzia**

Kutxako Gaztetxoek Elkarteak antolatzen ari den jardueren artean, atsegin handiz jakinarazten dizugu *Elikadura osasungarriak haurtzaroan duen garrantzia* gaia jorratuko duen solasaldia antolatu dugula. Hitzaldia Ana Elbusto mediku nutrizionistak zuzenduko du eta Sakramentinoetan burutuko da urtarrilaren 16ean, ostirala, arratsaldeko 17:15ean.

Laskorain ikastola

<http://www.tolosaldeko hitza.info/blogak/laskorain>

Euskal gorrakeen bisitaldia

Pasa den urtarrilaren 12an, Arroako L.H. 4. mailako ikasleak, tutoreak eta zenbait irakasle Euskal Gorrakeen (Pertsona Gorren Elkartearen Euskal Federazioa) Sentsibilizazio taldearen bisitaldia izan genuen.

Itziar eta Oihanarekin gauza asko ikasi genituen:

Pertsona gorra eta interpretea zer diren, pertsona gorrek dituzten komunikazio oztopoak, zein estrategiak eta baliabideak erabiltzen dituzten oztopo hauek gainditzeko, eta azkenik zeinuak eta alfabeto daktilogikoa ezagutu eta praktikan jartzeko aukera ere izan genuen. Benetan interesgarria izan zen eta asko ikasi genuen.

Doctor Fleming ikastetxea

<http://www.tolosaldeko hitza.info/blogak/fleming>

K **Kirol jarduera****Gaur****Areto futbol**

■ Usabalgo goiko kantxan, Bigarren Maila, 20:30ean: Laskorain-Aloña Mendi.

■ Usabalgo beheko kantxan, neska, 20:30ean: Laskorain-La Salle.

Bihar**Saskibaloia**

■ Usabalgo goiko kantxan, infantil mailan, 10:30ean; neska: TAKE B-Zubiri; mutilak: TAKE A-Oiartzun.

■ Usabalgo goiko kantxan, kadete maila, 12:00etan; neska: TAKE-Andatza; neska: TAKE B-Zurriola; mutilak: TAKE B-Ganbara.

■ Usabalgo goiko kantxan, jubenil maila, 18:00etan, TAKE Orbel-Urola.

Areto futbol

■ Usabalgo goiko kantxan, 18:00etan, Laskorain-Elorrioko.

■ Usabalgo beheko kantxan, jubenil maila, 09:30ean: Laskorain-Gamoa.

■ Usabalgo beheko kantxan, Lehen Mailan, 16:15ean, Tolargi-Egintza.

Eskubaloia

■ Usabalgo beheko kantxan, infantil mailan, 12:00etan, Tolosa-Urola.

Mahai tenisa

■ Usabalgo Gymean, mahai tenisa, 16:30ean.

Igeriketa

■ Usabalgo igerilekuan, 15:00etan, igeriketa klasika: Pako Sanchez saria

Futbola

■ Berazubi futbol zelaian, Gorengean Mailan, 16:30ean, Tolosa CF-Anaitasuna.

■ Usabalgo futbol zelaian, infantil txikiak, 10:00etan: Tolosa CF-Real Sociedad.

■ Usabalgo futbol zelaian, kadeteak, 11:30ean: Tolosa CF-Barakaldo.

■ Usabalgo futbol zelaian, Lurraldekako Bigarren Maila, 15:30ean: Amaro- Amara Berri.

■ Usabalgo futbol zelaian, jubenilen Lehen Maila, 17:30ean: Amaro- Luberrri.

Etz, igandea**Eskubaloia**

■ Usabalgo goiko kantxan, senior maila, 10:30ean: Tolosa-Groseto.

Atletismoa

■ Zerkasuan, 11:00etatik aurrera, Ero-Etxe Elkarteak antolatutako Haur krosa.

Urtarrilak 19, astelehena**Pilota**

■ Beotibar pilotalekuan, 16:30ean Esku pilota partidak profesionalen. Binakako Txapelketa: Berasaluze VIII eta Begino - Xala eta Laskorain.

H **Hilberriak****MODESTA OTXOTORENA ZABALETA**

Irutxuloko Hitzako lan taldeak une latz hauetan bat egiten du *Martin* marrazkilararen eta sendiaren saminarekin

DONOSTIA

2009ko urtarrilaren 14an

MARIASUN AZURMENDI KORTAZAR

Zure familiakoek ez zaitzugu ahazten.



Elizkizuna GAUR, OSTIRALA, arratsaldeko 18:30ean Donostiako ARTZAIN ONAREN parroki-elizan izango da. IGANDEAN, urtarrilak 18, goizeko HAMAIKETAN, bere aldeko meza egingo da SEGURAN.

SEGURA
2009ko
urtarrilaren 16a

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

902 402 900
zerbitzu iraunkorra

BULEGOAK: Andoain · Donostia (Bellatokia) · Errenteria (Bellatokia) · Hernani (Bellatokia) · Lasarte (Bellatokia-Sulabea) · Pasaja Tolosa (Bellatokia)

Euskararen normalizazioan urrats berriak emango dituzte eskualdean

Kultura » Galtzaundik, Kontseiluak eta UEMAK elkarlanean, hiru ekimen berri jarriko dituzte martxan, aurten.

ERREDAKZIOA

Euskararen normalizazioa lortzeko bidean urrats berri bat emateko erabaki dute UEMAK, Galtzaundik eta Kontseiluak. Elkarlanean aurrera eramango duten egitasmo honek hiru ekintza hartzen ditu bere baitan. Alde batetik, etxeetako buzoietan jasotako propaganda euskararen erabilera neurtuko dute. Bestalde, herritarrek eskaldun gisa jasaten dituzten bazterketa egoerak salatzen, keak biltzen dituzten buzoiak jarriko dituzte. Azkenik, UEMAK merkataritza establezimenduetara bisitak egingo dituzte euskarazko materiala eskaintzeko.

Aurtengo lan ildoak

Galtzaundi Euskara Taldea, UEMA eta Kontseiluaren arteko elkarlana 2005ean jarri zen abian. Ordutik hainbat ekintza gauzatu dituzte euskara normalizatzen lan horretan. Hasi berri dugun urteari begira berriz, bi ildo jorratuko dituzte. Hasteko, aurreko urteetako egitasmoekin jarraituko dute. Honen baitan, Adunan enpresen kanpaina bat egingo dute, euskaltegiakotako matrikulazioa bultzatzeari ekingo diote...

Hauetaz gain, lehen aipatu bezala, ekimen berriak ere abiaraziko dituzte orain. Etxeetako buzoietan jasotako propaganda komertzialean euskararen erabilera neurtuko dute aurten, euskarazko baztertzen duten agerian utziz.



Atzoko agerraldian: Kontseiluak Juan Luis Aranburu; Galtzaundiko Amaia Doyague eta UEMAKo Imanol Haro. E. EZEIZA

Imanol Haro, UEMAKo ordezkararen hitzetan, «ekintza honen xedea da kontsumitzaile gisa izan behar genituzkeen eskubideak urratuak izan direla publikoki salatzea».

Eskualde honetan, Anoeta, Iruira, Ibarra, Tolosa, Villabona, Amezketa, Aduna, Zizurkilen eta Alegian egingo dira besteak beste, neurketak. Honetarako, herritarren sare bat osatu dute, eta hauek, beraien etxeetan jasotako propaganda bildu eta ekimenaren arduradun diren erakundeekin elkarlanean diote. Ondoren, hauek, neurketak egin eta ondorioak ateratzeko. Behin, hau burututakoan, gutunak bidaliko dizkiete euskara baztertzen duten enpresen nahiz erabiltzen dituzten. Bestalde, tardeka, datuak publiko egiten joango dira eta

Behatokia salatuko dute. Urte guztian zehar emango da aurrera egitasmoa. Ekimen honek zenbait herritan aurrekariak baldin baditu ere, eskualde bezala, Euskal Herri mailan, lehendabizikoa izango da.

Dena den, UEMAKo kide ez diren herrietako bizilagunek, egitasmoarekin bat egin nahi badute, kide diren herrietako udal txetara joanaz edo Galtzaundirekin harremanetan jarriaz egin dezakete.

Kexen buzoiak eta merkatariei bisitak

UEMAk kide diren herrietan, urriaren jarri zituzten eskaldunon hizkuntza eskubideen urraketak salatzen dituzten keak biltzeko buzoiak. Orain arte 40tik gora jaso dituzte Tolosaldean. Honekin lotu nahi dutena da, herritarrek eus-

kaldun gisa jasaten dituzten bazterkeria egoerak salatzea, salaketak behatokia bideratzea eta irtenbidea bilatzea. Ekimen hau eskualdeko beste herrietara zabaltzeko asmoz Ibarra eta Tolosako Kultur Etxeetan ere buzoiak jarriko dituzte. Bestalde, urtean zehar ekimen zehatzak egingo dituzte buzoiak erabiltzeko.

Kontseiluak, merkataritzako eragile diren dendari eta norbanakoen arteko harremanean euskararen hedapenean eragiteko du helburu. Bide horretan, Bai Euskarari Ziurtagiria eskainiko diete orain hainbat dendari. Hau, konpromisoak hartzerakoan bermatzen duen erreminta nagusia baita. Hala, Juan Luis Aranburu, Kontseiluko kidearen esanetan, «orain arte Bai Euskarari esatea nahikoa

bazen ere, hemendik aurrera, euskaraz bai esateko konpromisoa hartzeraz bultzatuko ditugu».

Hiru urtetik gora elkarlanean

Galtzaundi Euskara Taldea, UEMA eta Kontseiluaren arteko elkarlana duela ia lau urte hasi zen. Ordura arte, hiru erakundeak euskararen normalizazioan nor bere kabuz zebilen lanean. Hori dela eta, elkartzeko premia ikusi zuten.

2005eko uztailean elkarlana abian jarri zuten, batez ere, merkataritzari begira. Orduz geroztik, merkataritza koordinatuta jardun dute, erakunde arteko informazio trukearekin eta dendari eskaintza bateratua eginaz.

Herritarrek eskaldun gisa jasaten dituzten bazterketa salatzen buzoia berriak jarriko dira

Etxeetako buzoietan jasotako propaganda komertzialean euskararen erabilera neurtuko dute

Urte hauetan hainbat egitasmo gauzatu dituzte, horien artean, Iruira eta Anoetan, enpresek euskararen aldeko konpromisoak hartzeko hitzarmena sinatu zuten bi udalek eta Galtzaundik. Bestalde, Euskaraz Bai Kultur Astea elkarrekin antolatuta zuten eta elkarre gastronomikoetan euskararen erabilera sustatu zuten.

UEMA erakunde publikoa izanagatik ere, herri ekimen batetik sortu da, eta horregatik beti izan du hanka bat euskalgintzan eta beste administrazioan. Imanol Haroren hitzetan, «UEMArentzat ezinbestekoa da eskualdeko euskalgintzarekin lanean jardutea, euskararen normalizazioan ahalik eta eragile gehien inplikazioa lortzeko». Hala, UEMAK udalerritik euskaldunen ikuspuntua txertatu du, eta eskualdeko kanpoko esperimentzen berri eman.

Euskararen Astea antolatzeko herriko eragileak hilaren 21ean bilduko dira berriro

Kultura » Martxoaren 24tik apirilaren 4ra bitartean ospatuko da; egitaraua osatzeko, orain gutxi hasi dira biltzen.

ERREDAKZIOA

Asteartean Tolosako zenbait eragile elkartu ziren lehendabiziko aldiz, Euskararen Astea antolatzeko. Bertan izan ziren, Orixe, Laskorain eta Hirukide ikastetxeetakoak, Udaberri dantza taldekoak, Ereite elkartekoak eta Udaleko Euskara ataleko ordezkariek. Dena den, hauetaz gain ere beste

hainbatek ere parte hartzeko go-goia adierazi zuten. Hurrengo bileren datoren asteazkenean izango da, hau da, hilaren 21ean. Batzarra 09:30ean izango da Kultur Etxean.

Aste honetan egingako bilkuran zenbait gauza zehaztu zituzten. Horien artean, martxoaren 24tik apirilaren 4ra bitartean ospatuko litzatekeela Euskararen Astea. Hala, 24 eta 25ean, Dar-Dar Produktzioak *Eta zer?* antzerki emanaldia eskainiko du 6-16 urte bitarteko ikasleentzat. Antzerki honek, desberdin izateko dugun eskubidea aldarrikatzen du: *Ni erremere naiz, eta zer?*, *Niri fubola ez zait gustatzen, eta zer?*, *Ni potoloa naiz,*

eta zer?, *Nire aita etxekoandrea da, eta zer?* liburuetan oinarritutako antzerkia.

Martxoaren 26an berriz, euskarazko film bat proiektutako dute eskola orduetan, gazteentzat. Bi egun beranduago, hilabeteko azken larunbatetan ohikoa den bezala, Tolosa Kantari izango da. Bertso Jazza ere bai Leidorren. Donostiako Jazzaldian egingako saio oso arrakastatsuen antzekoa hilabeteko emateko asmoa du Bertsozale Elkarteak. Hori dela eta, hurrengo saioetako bat Tolosan izango da.

Apirilaren 2an Korrika igaroko da Tolosatik eta 3an, Benito Ler-

txundik kontzertua eskainiko du Leidor antzokian. Azkenik, apirilaren 4ean, Udaberri Dantza Taldeak urteroko antolatzen duen Dantzari Txiki Eguna ospatuko da. Euskal Herriko zazpi herrialdeetako dantzari taldeak ekarri nahi ditu Udaberri. Dantzariak kale ibiliko dira dantzan. Egunari amaiera emateko berriz, erromeria egingo dute eta afaria.

Ekitaldi hauetaz gain beste batzuk ere burutuko dituzte egun horietan. Hala ere, oraindik zehazteke daude. Baita Euskararen Astea izena bera ere, batzuen iritziz, beste modu batera deitu behar baitaio egitasmo honi.

Iragarki laburrak

LANA

■ **Iturgina.** Iturgin lanetarako pertsona bat behar da. Interesatuak deitu ondorengo telefono zenbakira: 656 41 68 08.

SALGAI

■ **Etxea.** Etxebizitza salgai, Tolosako Alde Zaharrean. Merkea, obra egin beharra dago. Interesatuak deitu 657 23 00 11ra edo 634 91 94 82ra.

ALOKAIRUAN

■ **Etxea.** Etxebizitza alokairuan. Le-kunberri, lau logela ditu. 104 metro2 neurtzen ditu eta lehenengo pisua da. Berogailuarekin. 480 euro hilabetean. Interesatuak deitu 636 17 16 24 telefono zenbakira.

Sute baten ondorioz bi etxe hustu behar izan dituzte

Sutea » Soldadu kaleko 12. zenbakiko 4. solairuan piztu zen; etxebizitzaren jabea artatu beharra izan zuten kea arnasteagatik.

INIGO TERRADILLOS

Herenegun gauean Tolosako Soldadu kaleko 12. zenbakian sute bat sortu zen, eta ondorioz bertako bizilagunak eta ondoko eraikinekoak etxetik irten beharra izan zuten. Ez zuten zauririk eragin, baina kalte material handiak sortu zituen. Sutea zerk sortua izan zen ez dakite oraindik, eta Ertzaintza ikertzen ari da.

20:45 inguruan sortu zen sua Soldadu kaleko 12. zenbakiko 4. solairuan, hau da, eraikin horretan

ko azken pisuan. Une horretan etxebizitzaren jabea, 32 urteko tolosarra etxean zegoen. Bera konturatzera piztu zen sua etxean, eta ke handia zegoela etxetik irte beharra izan zuen. Hain zuzen ere, ke gehiegi arnasteagatik larrialdi zerbitzuak artatu beharra izan zuten, oxigenoa ezarri. Etxebizitzaren jabeak adierazi zuenez, hasieran berogailuan sortu zela sua uste zuen, baina hura ikustera joan zenean konturatu zen ez zela horrela izan, eta zirkuitulabur baten ondorioz izan zitekeela aipatu zuen.

Ez zen sua gehiegi zabaldu

Su handia piztu zela ikusita, bai 12. zenbakiko bai eta 10. zenbakiko eraikinak hustutzeko agindua eman zuten segituan. Suhiltzaile-



Soldadu kaleko 12. zenbakiko 4. solairuan sutearen ondorioak nabari daitezke. I.T.



ek eraikinak hustu bezain pronto sua itzaltzeari ekin zioten. Udaltzaingotik adierazi zutenaren arabera, «sua ez zen gehiegi zabaldu «eraikinaren egitura hormigoizkoa baita; kontrakoa gertatuko litzateke egurrezkoa balitz, orduan, beste solairuetara segituan zabalduko bailitzateke». Beraz, handik gutxira lortu zuten sua itzaltzea, eta azkenean, kalte materialak bai-

no ez zituen eragin. Suhiltzaileez gain, Ertzaintza eta udaltzaingoa ere gerturatu ziren ezbeharrak jazo zen lekura, eta baita Udal ordezkariak ere.

Sua itzali ostean, herenegun gauean bertan Soldadu kaleko 10. zenbakiko bizilagunek euren etxetara itzuli ahal izan zuten. Ez, ordea, 12. zenbakikoek. Hauek etxetik kanpo igaro beharra izan zuten

gaua, sendikoen etxean, eta oraindik ez dakite noiz itzuliko ahalko duten, izan ere, Ertzaintza ikertzen ari da sutea zer eragin zuen. Atzokoizean izan ziren suteak eragindako kalteak aztertzen, eta laugarren solairua izan dela kaltetue-na azaldu du Udaltzaingoa. Ikerketak iraungo duen bitartean sutea izandako eraikina hesituta edukiko dute.

«Gizonek ez dute isilik geratu behar»

Gizartea » Emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean sentsibilizatzea lortu nahi dute; izena emateko aukera badago.

I. TERRADILLOS

Herenegun gauean aurkeztu zuten jendaurrean emakumearen aurkako indarkeriaren aurka eta berdintasunaren aldeko Gizonen Elkargunea. Taldearen sustatzaileak izan ziren Kultur Etxean, eta baita izena ematera eta elkartearen nondik norakoak jakitera gerturatu ziren gizonetakoak ere.

Taldearen sustatzaileetako den Joxe Mari Arakamak azaldu bezala, «indarkeria ez dela desagertzen ikusten dugu, eta horregatik gizonen osaturiko taldea osatu



Gizonen Elkargunearen sustatzaileak, herenegun, Kultur Etxean. NOTICIAS DE GIPUZKOA

dugu, izan ere, emakumeenganako indarkeriaren jatorria gizonetakoetan dago».

Hainbat faktore desagertu arte indarkeria ez dela desagertuko

adierazi dute; «horren aurrean go-goeta egitea da gure asmoa». Hala, batzorde desberdinak sortuko dituzte bakoitzak zeregin bat izango duelarik, hala nola, «testuak azter-

tzea edo formatzea, dokumentazioa edota hezkuntza atala, esaterako».

Tolosaldean mailan eragin nahi du talde honek. Hain zuzen ere,

«emakumeenganako indarkeria kasuen aurrean gizonen ez dutela isilik gelditu behar esan nahi dugu; gizonen egiten gaitu horrek, eta ez alderantziz; gainera, gure ustez, gizonen ez badugu aurrerapauso bat ematen emakumeenganako indarkeriaren aurrean, arazoa ez da benetan konponduko». Gizonen Elkargunearen helburua ez dela salatzea dio Arakamak, «gure lana, batez ere, kontzientziaztea da».

Izena emateko aukera

Herenegun egin zuten aurkezpen hainbat herritarrek eman zuten izena ekimenean parte hartzeko, baina oraindik ere aukera zabalik egongo da horretarako, izan ere, aste honetan eta hurrengo aste osoan zehar taldeko kideak Kultur Etxean izango dira 20:00etik 20:30era bitarte. Hauek datuak jasoko dituzte, eta hurrengo astetik aurrera hots egingo dituzte bilertara gerturatzeko.

txokoa

Sarrera pare zozketan!

Bide ertzean

CD-DVD kontzertuaren grabaketa

irabazlea:

◦ Ramon Arin (Ikaztegieta)

Ostirala ◦ Urtarrilak 16 ◦ 22:00etan
Tolosako Leidorren



5 sarrera pare zozketan!

Zer duzu negarrez, Marie?

Haurrentzako antzerkia

irabazleak:

- Alazne Dorronsoro (Bidegoian)
- Joxe Agustin Arrieta (Tolosa)
- Mila Urkizu (Ibarra)
- Asier Zubiria (Tolosa)
- Alkizako Herri Eskola (Alkiza)

Urtarrilak 17 ◦ Larunbata ◦ 17:00etan ◦ Tolosako Leidorren



Ikasturte honetan abian jarri da Larraulgo eskola. Bederatzi haur daude bertan, 2 eta 4 urte bitartekoak. Asteasuko Pello Errotako gela desplazatua bezala funtzionatzen du.

Martxan dago eskola

IMANOL GARCIA

Udaletik eta guraso elkartetik mugitu duten eskola martxan dago Larraulen. Kultur Etxeko bi gela egokitu dituzte horretarako. Bederatzi haur daude bertan, 2 eta 4 urte bitartekoak. Haur eskola, bi urte artekoa, ere martxan jarri dute dagoeneko. Ikasturtean hiru haur hasi baziren ere, egun bost haur daude bertan.

Maikar Iurramendi eta Amaia Iparragirre arduratzen dira Haur Hezkuntzako ikasleak. Asteasuko Pello Errotako irakasleak dira. Hain justu, Larraulgo eskola Pello Errotaren gela desplazatua baita, hau da, Asteasuko eskolaren baitan dago egun.

Lehenengo ikasturtea izanik, Iurramendik azaltzen duenez, «eskola pixkanaka itxura hartzen ari da». Haur guztiak gela batean daude eta bestea irakasleentzako bulego gisa dago prestatua. Irakasle batek bakarrik ordutegi guztia ez du hartzen eta horregatik beste irakasle bat egon behar da bertan, kasu honetan, jardunaldi erdiz.

Adin ezberdinak batera

Gela berean adin ezberdinetako haurrak egotea oso interesgarria iruditzen zaio Iurramendiri: «Eskola txikietako ikuspegia beti gustatu izan zait. Nik ez dizkiot oztopoak ikusten. Hori aurreiritziak izaten dira normalean. Adinak ez du markatzen haurren adimena, bakoitzak duen esperientzia da».

Haurrak elkarrekin aritzen dira gelan, baina bakoitza bere erritmoan. «Bi urteko lau haur daude gelan», zehazten du Iurramendik, «eta hori errespetatu behar da. Ezberdinak dira erritmoak, lan dinamika...».

Iurramendik gurasoen parte-hartzea goraipatzen du: «Eskola aurrera ateratzeko lanean aritu dira eta haurrak herrian gelditzea nahi dute. Prest egoten dira laguntzeko». Kultur Etxearen aurrean dagoen belazea jolastoki bezala erabiltzeko aukera izaten dute. «Hori bai, txakurren kakarik ez egotea eskertuko genuke eta baita jolastoki bat izatea ere, zerbait sinplea bada ere», diote irakasleek.

Herriko haurren eta gurasoen artean harremanak

Haurrak herrian bertan eskola izatea oso garrantzitsua deritzote gurasoek eta Udalak. Guraso elkarteak den Maider Sanzek azaltzen duenez, «gure haurrak herrian he-

zitzea eta haztea nahi genuen, bertan bizia egiteko. Eta horretarako ezinbesteko tresna da eskola». Bestalde, orain ez dute autorik hartu behar eskolara eramateko. Eskolara herrian bertan joateak haurren arteko harremanak sortzen ditu. Eta noski, gurasoen artean ere. «Azken urteetan etxebizitz berriak egin dira Larraulen eta kanpotik etorri da jendea. Eskolak herri giroa biziagotzen laguntzen du, herritarren artean harremanak sortzen ditu».

Gurasoek eta Udalak elkarlanean bultzatu dute herrian eskola zabaltzearena. «Asteasuko eskolak ere asko lagundu du proiektuan», zehazten du. Eskolarekin lotura zuzena ez duten herritarrek ere begi onez ikusi dute eskola martxan jartzearena. «Orokorrean ondo hartu da herria. Aberasgarria dela diote eta giroa suspertzen duela, herrigunea alaiagoa dagoela», dio Sanzek.

12 urte arte

Udala eta guraso elkartearen helburua Lehen Hezkuntza bukatu arte, hau da, 12 urte egin arte haurrak herrian egotea da. Datorren ikasturtean 2 eta 5 urte arteko 18 haur izango dira eskolan. Dagoeneko prest dute Hezkuntza Sailarri 8 urte arteko proiektua aurkezteko. Xabier Mujika alkateak azaltzen duenez, «egun dagoen gela handitu egingo litzateke balakoa bere baitan hartuz. Gero zati-keta bat egingo litzateke bertan bi gela sortzeko».

Proiektua onartzen badute, ez da martxan jarriko 2010-2011 ikasturtera arte, orduan pasatuko baitira Lehen Hezkuntzara zenbait ikasle. Hori guztia Pello Errota eskolarekin ere lotu beharko dute, beraiek eramango baitute funtzionamendua.



Gelaren ikuspegi orokorra, goian, eta bi haur jolasean. I. GARCIA



Eskola txiki batean bezala, adin ezberdinetako haurrak elkarrekin daude gelan. I. GARCIA



Haur Eskolan, bi urte bitartekoan, ikasturtea hasi zuten hiru haurrak bazkariaren garaian. I. GARCIA

Urtarrilak 17an Txotx garaiari hasiera emango zaio.



ISASTEGI
sagardotegia

Larunbat eguerditan irekita

Isastegi Sagardotegia, S.L.
Aldaba-Txiki auzoa, 15 A - TOLOSA
Tel.: 943 65 29 64



Kirol elkartearen urtetako lana

IBARRA ● Asteazkenean aurkeztu zuten herriko Kirol Elkarteak euren ibilbidearen erreposoa biltzen duen liburua; *Ibarrako Kirol Elkarteak. Elkartearen Herrigintza*. Lanak elkarteak azken 40 bat urteetan egindako

ekintzen berri ematen du eta akten laburpenak jasotzearekin batera garai bateko argazkiak biltzen ditu. 500 ale kaleratu dituzte eta herriko hainbat saltokietan eros daitezke 20 eurorengatik. **IBARRAKO UDAL FOTOTEKA**

Euskarazko webguneak diruz laguntzeko deialdia ireki dute

Villabona ● Otsailak 27 bitarte aurkez daitezke diru laguntzak jasotzeko eskaerak herriko Euskara Zerbitzuan.

laguntzarik jasoko, ezta edukietara iristeko edonolako mugak jarritzen dituzten webguneek ere. Era berean, ez dira deialdi honetan sartuko edozein herri erandunderilotutako enpresa, talde, elkarte eta abarretako guneak.

ERREDAKZIOA

Villabonako Udaleko Euskara Zerbitzuak diru laguntza deialdia egin du webguneak euskaraz egin nahi dituzten herriko elkarte, saltoki, erankude edo enpresentzat. Udalak esandakoaren arabera, diru laguntza hauen bidez euskararen erabilera sutatu nahi dute «hain garrantzitsua den esparru honetan».

Webgune hauen edukia euskarazkoa izan beharko du, baina bertako informazioa beste hizkuntza batzuetan ere egon daiteke. Deialdiaren baldintzen arabera webgune pertsonalek ez dute diru

Udalak aztertuko ditu

Eskaerak egiteko unean webgunea egin behar du, izan ere Udalak aztertu egingo ditu.

Diru laguntza hauek jaso ahal izateko eskatzaileen egoitza fiskala eta soziala Villabonan egon behar da. Dena den, deialdirako baldintzak zehatzago ezagutu nahi dituenak Villabonako Euskara Zerbitzura jo dezake.

Halaber, diru laguntza deialdiari buruzko informazioa Udalaren www.villabona.net webgunean eskura daitezke. Diru laguntza eskatzeko epea otsailaren 27an bukatuko da.

Osakidetzako osasun txartel berria eskura daiteke hil honetan

Anoeta ● Asteleheneetik ostiralera 16:00etatik 20:00etara eskura daiteke herriko KZgunean.

ERREDAKZIOA

Anoetan Osakidetzako osasun txartel berria, ONA izenekoa, eskuratu nahi duenak hil honetan zehar egin dezake herriko KZgunean (udaletxe atzealdean, Solkore kaleko 4. zenbakian). Asteleheneetik ostiralera egin daitezke 16:00etatik 20:00etara.

Txartel berria 16 urtetik gorako edozein pertsonak eska dezake eta horretarako nortasun agiria eta Osakidetzeko txartel urdina eraman behar ditu.

Laburrak

D3M plataformaren aldeko sinadura bilketa

OREXA ● D3M plataformaren aldeko sinadura eman nahi duenak igande honetan, hilak 18, izango du aukera 12:00etatik aurrera Orexa-ko udaletxean. Datorren astearte eta ostegunean ere udaletxean izango dira; 09:30etik 14:00etara.

Txarama Elkarteak batzarra izango da etzi

TXARAMA ● Txarama Elkarteak ki-deek etzi, hilak 18, ohiko batzarra izango dutela esan dute. Lehen deialdia 10:30ean izango da eta 11:00etan bigarrena. Azken bilkuraren akta onartzea, zuzendaritza berriaren hautaketa eta galde-eskariak izango dituzte ardatz. Elkarteak kideek bazkide guztiei bertaratzeko deia egin nahi diete.

Joseba Barandiaranen hitzaldia Gaztañondon

BERASTEGI ● Gaur 21:00etatik aurrera Joseba Barandiaranen hitzaldia izango da Berastegiko Gaztañondon. Ekonomiari buruz mintzatuko da legazpiarra eta hitzaldia herriko Aldin Elkarteak antolatuko du.

Kiroldegiko bonuak berritzeko epea zabalik

ANOETA ● Anoetako Abraham Olano kiroldegiko bonuak berritzeko epea irekita dago jada. Baten batek baja eman nahi izanez gero kiroldegian jakinarazi beharko du, gainontzekoan automatikoki berrituko dituzte bonuak. Bestalde, oraindik ere cycling eta yoga ikastaroetako plaza libreak daude la ere jakinarazi dute.

Alaitz Eguren emango du antzerki ikastaroa

ANOETA ● Anoetako Udalak Aste Santuak arte iraungo duen antzerki ikastaroa antolatuko du. Izen-emate epea gaur bukatuko da eta udaletxean edo kiroldegian egin daitezke. Irakaslea Alaitz Eguren izango da eta tailerrak 30 euro balio du. Murriztapen desberdinak ere badaude: gazte txartela dutezentzat %10ekoa, familia ugarientzat %25ekoa eta diru-sarrera baxuak dituztenei ere zenbatekoa murriztuko diete.

Trontzerraren bilera izango da gaur

ALKIZA ● Alkizako Udalak gaur 21:00etan Kultur Etxean trontzerraren bilera izango dela jakinarazi du. Bileran zenbait entitateekin izandako harremanen berri emango dute, trontzerra txapelketara fiantzatzeko talde bat sortzeko ideia eztabaidatuko dute eta San Isidro egunean bazkari bakarra egitearen inguruan hitz egingo dute, besteren artean.

Gimp, E-Administrazio eta Internet tailerrak

Anoeta ● KZguneak ikastaro desberdinak antolatuko ditu; hilaren 23a baino lehenago eman behar da izena.

ERREDAKZIOA

Anoetako KZgunea hil honetan astearte, asteazken eta ostegunean 11:00etatik 13:00etara eta astelehene eta ostiraletan 16:00etatik 20:00etara egingo da zabalik.

Era berean, doako ikastaroak antolatzen ere ariko dira. Batetik, Photoshop programaren antzeko den Gimp oinarriko ikastaroa eskainiko dute. Internet nabigatzen ikasteko eta posta elektronikoa erabiltzen trebatzeko aukera ere izango da, bestetik, eta zuzenki, E-Administrazio tailerra ere izango da tramite administratioboak Internet bidez ikasteko. Izena hilaren 23a baino lehenago eman behar da KZgunean bertan, Udaletxean edota kiroldegian.

Aulas Kutxaren ikastaro ugari otsailetik aurrera

Alegia ● Pilates soinketa egiteko, bainika-lanak ikasteko eta altzariak zaharbertzeko ikastaroak antolatuko dituzte.

ERREDAKZIOA

Pilates metodoan bidezko soinketa ikastaroaren lehen eta bigarren maila ikastaroak izango dira otsailaren 5tik abenduaren 10a bitarteko Alegiako Kultur Etxean Aulas Kutxa ikimenaren barruan. Lehen mailako eskolak ostegunean eta gaztelerez izango dira, 18:00etatik 19:30era, eta 95 euro balio du. Bigarren mailako ikastaroa ere salneurri berdina du eta as-

teartetan eskainiko dute. Hau ere gaztelerez izango da. Bestalde, bainika-lanak egiteko tailerra eta altzariak zaharbertzeko ere antolatuko dituzte. Lehenak 77 euro balio ditu, astelehenean izango da eta maiatza bitarte iraungo du. Bigarrena, aldiz, 48 eurokoa da eta ostiraletan egingo dute. Biak ala biak euskaraz izango dira.

Natura-kosmetika Gaztelun

Gaztelun ere Aulas Kutxak natura-kosmetika ikastaroa antolatuko dute. Ikastaroetan, bai Alegiakoetan eta baita Gaztelukoan ere, izena emateko epea hilaren 19an amaituko da eta www.kutxasocial.net helbidearen bidez edota 902 540 040ra deituta egin daitezke.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

E Elkarrizketa

UNAI ELIZASU › Gai-jartzailea



NAIARA GARZIA

«Bertsolaritzari eta kulturgintzari aportazio bat egin nahi diogu»

Leitza » 'Berto Jazza' Donostian jarri zuten 10 lagunek martxan; urtarrilaren 22an Iruñean egongo dira eta ibilbidea amaitu aurretik Tolosatik ere pasako dira.

ASIER IMAZ

Bertsozale Elkartearen zerbitzu enpresan, Lankun, aurkitu dugu Unai Elizasu (Altxa, 1980) lanean. Azken 2-3 urtetan Leitza bizi den gai-jartzaileak, lau bertsolari eta bost musikarirekin batera, *Berto Jazza* emanaldia sortu du. Urtarrilaren 22an, ostegunean, 20:00etan Iruñeko Gaiarre antzokian egongo dira eta martxoan 28an, Tolosako Leidor aretoan.

Zer da 'Berto Jazza'?

Berto Jazza ideia baten inguruan sortu zen: bertsoa baldin bada hitzaren bapateko alorra, musikaren bapateko alorra jazz zela konturatu. Biak bapatean oinarritzen baldin badira, biak bapatean elkarrezko arazorik ez du egon behar. Elkarren arteko oinarri batzuk jarri genituen eta Donostian egin genuen lehen emanaldia. Ezagutzen dugun bertso saio normal bat da baina bertsoa une oro musikaz jarraitua edo apaindua egongo da.

Idea Donostiako Jazzaldirako sortu zenuten espreski.

Bai baina ideia aspalditik generabilkien buruan. Garbi genuen sortzeko edo egiteko leku egokiena Donostiako Jazzaldia zela, azken batean jazz ere egiten genuelako

neurri batean edo neurri erdian behintzat. Apustu handia zen, izan ere, bertsoa ez da sekula sartu horrelako jaialdi internacional handi batean. Gure irudiak Liza Minelli eta Diana Krall-en tartean egoten zirene eta hori gaur egunean ez da sekula lortu. Horretara zuzendu zen eta bertan egin genuen lehen eta azken emanaldia.

Donostiako arrakastaren ondoren, beste 12 emanaldi eskainiko dituzue orain.

Oraindik ez dago zehaztuta hamabi izango diren edo ez, baina gehiago ez direla izango hori segurua; lan handia eskatzen duelako eta emanaldi asko ere ez ditugulako egin nahi. Ez dugu beti egingo Donostian egin genuen hura, bertsolariek nik jarritako gaietara erantzun egiten eta gaiak beti ezberdinak izango dira, ondorioz bertsoak ere bai. Donostian erabili genituen 10-12 doinu horiek emanaldiero berritu nahi ditugu, baina honekin ez du esan nahi emanaldi guztietan doinu berriak aterako direnik. Lan asko eskatzen du horrek eta horretatik esan genuen gehinez ere 12 emanaldi egingo genituela. Agian gutxiago egingo ditugu, dozena erdia nahikoa izango dugu agian, bapate bertsolaritzari eta kulturgintzari aportazio bat egin nahi diogu, ia udareekin batera amaituko da proiektu hau eta orduan beste gauzetan pentsatzen hasiko gara.

Zein izango da emanaldi hauetan gai-jartzailearen papera?

Gai-jartzaileak azkenean edozein gai-jartzailearen papera du; bertsolariek gaiak jarri behar die. Baina

kasu honetan gaiak sortzeko modua zeharo ezberdina da; denok badakigu bertsolari bakoitzak zein doinutan kantatuko duen eta doinu horrek duen tonoa eta erritmoa, edozein gaik ez du balio, doinu bakoitzak sortzen duen klima edo giro horretara egokituakoa gaia izan behar du. Gai umoretsu bat edo Karibeko melodia bat sugeritzen duen doinu bati ezin diogu jarri gai bezala harategian zauden harakina zara. Sorkuntza lana bai-
no gehiago bilatze lana da gaiak ekartzeko garaian.

Eta ondoren musikariak eta bertsolariek bat-batean hasiko dira.

Musikariek neurri batean inprobisatu dute, alegia, doinu hori jo behar dute bertsolariek horren gainean inprobisa dezaten. Baina noski, musikariek ere lan berezi bat eskatzen diegu; bertsolariek hitzkin esaten duten hori jarraitzen aieginu daitezela musikariak. Adibidez, bertsolari batek San Fermín hitza edo aipamena erretzen baldin bada, musikariak erreflexua edukitzea behar du gai horren inguruko melodia bat joaz. Musikariak bere partituraren gainean jotzeko dute baina bertsolarien atzetik ibili beharko dira aldi oro.

Musikariak eta bertsolariak berdinar ibiliko al dira 'Berto Jazza' emanaldietan?

Bai. Haseratik proiektu hau presatzen lan handia egin dugu eta printzipioz Donostiarako bakarrik pentsatu genuen. Gero jendeak eskaerak egin ditu eta lana hamarrok egin dugunez, badakigu zertara sartu garen eta zer egin nahi dugun

honekin. Proiektuari hasiera eman genion eta 2009ko irailean inguruan emango diogu amaiera. Bidea ireki dugu eta hemendik aurrera beste bertsolari eta musikariek zer bait egingo balute, arrastoa irekita dago.

Bertsolaritzan bide berriak ari dira zabaltzen. Gai-jartzaileen munduan zer?

Azkenean denok ditugu sorkuntza kezka. Ohiko plazetan ibiltzen gara eta badakigu plaza horiek zer duten eta zer eman genazake bertan. Baina *Berto Jazza* bezalako emanaldi batek edo laster etorriko den *Erregea eta Bufioa* bezalakoek, beste sorkuntza klase bat eskatzen dute. Gai-jartzaileen figura bertan egokitzat ikusten baldin bada, sorkuntza lana eta egin beharreko lana eguneroko plazetan egiten ez dena izan beharko da, bestela neurri batean beti berdina egiten ariko ginatoko eta horrek ez du asko motibatzen.

Gai-jartzaileak inprobisazio izpi bat ere eduki behar izaten du.

Nik uste oinarritzak dela oholta batetara igotzen den mementoan gai-jartzaileak inprobisatzeko txip hori piztuta edukitzea. Derrigorrezkoa da. Nik etxetik saioa goitik behera egin eramango dut, baina bertan ikusten dudana zerbaitek inprobisaziorako tartea ematen baldin badit, eta ustez dudana baino hobea baldin bada, egin egin behar da. Horretarako konfidantza piska bat behar izaten da; jendearekiko, ondoan dituzun bertsolariekiko... eta hori ez da lehen egunean egiten.

Leitzako pilotariek maila guztietan jokatuko dituzte partidak

Pilota » Barriolak eta Bengoetxea VI.ak Getarian eta Mungian jokatuko dituzte euren partidak gaur eta etzi.

A. IMAZ

Gorengo mailako binakako txapelketaren jardunaldi berri bat jokatuko da asteburu honetan. Gonzalez-Barriolak Getarian jokatuko dute gaur 22:00etan, Olaizola I-Patxi Ruizen aurka.

Bengoetxea VI-Beloki bikoteak etzi jokatuko du Mungian, 17:00etan hasiko den jaialdiaren barnean, Titin III-Pascualen aurka.

Aurrerako pilotariak

Elgoibarko Txapelketaren finala jokatuko dute gaur 22:00etan Jaunarena eta Zabaleta leitzarrek.

Nafar Jokoak bihar hasiko dira berriz, Amazabalen partidak egongo direlarik 10:00etan. Azkenik, Euskal Herriko Ligan Agirre eta Aristorenak jokatuko dute.

T Telefonoak Larrialdiak. ((112))

- OSASUNA.**
- Alegialdea.** Osasun z.: 943 653212
- Anoeta-Alkiza-Hernalde.**
Medikua: 943 65 23 39
- Asteasu.** Medikua: 943 692423
- Baliarrain.** Medikua: 943 889003
- Berastegi-Elduain.**
Medikua: 943 683361
- Bidegoian.** Medikua: 943 681134
- Ibarraldea.** Osasun etxea: 943 672411
- Ikaztegieta.** Medikua: 943 653329
- Iruia.** Osasun zentroa: 943 690720
- Leitza.** Osasun z.: 948 510800
- Orendain.** Medikua: 943 655595
- Orexa.** Medikua: 943 682228
- Tolosa.**
- Anbulatorioa, larrialdia:** 943 461111
- San Esteban:** 943 006800
- Gernikako arbola:** 943 006900
- Amarozko dispen:** 943 672637
- Asuncion klinika:** 943 675799 - 943 67 53 90 (larrialdiak)
- DYA:** 943 672536
- Gurutze Gorria:** 943 674888
- Villabona.** Anbulat.: 943 006970
- Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 943 693930
- GARRAIOAK.**
- Renfe:** 902 24 02 02
- Donostiako autobusa:** 943 361740
- Tolosaldeko bus:** 943 650621
- Leitzaran autob.**: 948 221015
- Taxia:** 943 670420
- Taxia (Leitza):** 608 873016
- BESTERIK.**
- Ertzaintza:** 943 538820
- Tolosa-Udaltzaingoa:** 943 675858
- Tolargi:** 943 650016
- Iurramendi egoitza:** 943 670325
- Tolosa gasa:** 943 675320
- Alkoholiko anonimoak:** 943 248474



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Musika

■ **Tolosa.** Bide Ertzean musika talde tolosarrak bere hamar urteko ibilbidea ospatzeko zuzeneko CD-DVD bat grabatuko du 22:00etatik aurrera Leidor aretoan.

Kirola

■ **Asteasu.** Aranotik Besabira antolatatu du irteera Sagain menditako iganderako. Zaburu (778 m.), Onddo (781 m.) eta Adarra (811 m.) gainak igoz. Irteera 08:00etan izango da udaletxe aurrean eta eguerdirako itzuliko dira.
■ **Tolosa.** Alpino Uzturre elkarteak fondoko eski ikastaroa antolatatu du bihar eta etzira 1995-98an jaiotako haurrentzat. Irteera 07:15ean izango da eta itzulera igande arratsaldean. Izen-ematea, 685 776504 edo alpinouzturre@begira.com helbidean.

Erakusketak

■ **Alegia.** Marce Tenaren begiei buruzko margolanak ikusgai asteartetik igandera bitarte Jubilatuen tabernan. Bizi-biziki eta denetan begia da jorratzen duen gaia.
■ **Tolosa.** Ana Jesus Ansorena tolosarraren buztin egosi artelanak ikusgai Lanbroa tabernan.
■ **Tolosa.** Basoa erakusketa Aranburu jauregian, Ingurugiro departamentuak antolatuta, La Caixaren babespean.
■ **Tolosa.** Geureak ere badira adingabe horiek, bakarrik dauden adin txikiko atzeritarren inguruko ar-

gazki erakusketa eta bisita gidatuak Kultur Etxean.

■ **Tolosa.** Jose Enrique Ceberioaren olio-lanak eta akuarelak ikus daitezke Itaie tabernan.
■ **Tolosa.** Juan Jose Agirre tolosarraren margolan erakusketa Aranburu Jauregian.

Deia ldiak

■ **Aduna.** Asvinenea Kultur Elkarteak III. Poltsikoko Antzerki Lehiaketa antolatatu du profesional zein amateurrentzat. Informazioa eta izen-ematea, www.asvinenea.com webgunean egin daitezke.

■ **Ibarra.** Hilaren 23an 18:00etatik aurrera Belabieta kiroldegian izango den Pirritx, Porrotx eta Mari Mototsen *Piratak* ikuskizunerako sarrerak salgai jarri dituzte, Ibarra-ko Zubiaurre Tabernan, Lurdes dendan, Errotatxon, Uzturpe Ikastolan eta Tolosako Zumbeltz disko dendan. Sarrerak 6 euro baliotu ditu.

■ **Tolosa.** Martxoko hauteskunde-etarako hautesle zerrendak ikusgai daude udaletxeko beheko so-lairuan, erreklamazioak egin ahal izateko.

■ **Tolosa.** Eski irteera Formigalera antolatatu du Oargi mendiko elkarteak

hilaren 17 eta 18rako. Informazioa eta izen-ematea, 943 675612, 688 698642 tefelono zenbakietan eta www.oargi.org helbidean.

■ **Tolosa.** Veleta-Aiz Orratz elkarteak 75 urte beteko ditu aurtetik. Argazki zahar eta berrien erakusketa ari da prestatzen eta horretarako materiala biltzen ari dira. Bazkideek, bazkide ohiek eta zerba-it dutenek, elkartera eraman dezakete materiala. Informazioa 655 738739 telefono zenbakian lor daitezke.

■ **Tolosaldea.** Sahararen aldeko Euskal Karabana, *Piztu Itxaropena*

lelopean. Eskualdean, Tolosaldea Sahararekin elkarrean ari da aurrera eramaten janari bilketa: arroza, le-kaleak, pasta, hegalezko oliotan, sardinak oliotan, azukrea eta konpresak. Urtarrilaren 31ra arte bil-duko dituzte.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. 943 670648.
■ **Leitza.** Larraia, M. I. Elbarren, 95. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanien eta iritzien erantzunik.

A Agurrak



Urte askoan!

Nicolas (Tolosa).
Gaur 8 urte. Zorionak etxeko guztien partetik.



Urte askoan!

Danel Barriola Goicoechea.
Gaur 3 urte. Zorionak etxeko bihurriari familiaren partetik.

agurrak

urtebetetzeak - urrezko ezteiak ezkontzak - jaioberriak jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa



Urtarrilak 17

Sala Muxuren denboraldi hasierako festa

Laser berria, argi ikusgarriak, gaur egungo musika, go-goak eta ezusteko asko.

Sarrera edariarekin: 8euro
Ordutegia goizeko 1:00etik goizeko 7:00etara
Goizeko 2:30ak arte sarrera doan.



Urtarrilak 24

Izugarrizko Pirata festa

Sala muxu • Albisualdea industrialdea 31 zkia. • LEKUNBERRI